



ZIRKULARRA

OSASUN ARRETA BEREZIA ESKOLA ORDUETAN

Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2005eko azaroaren 29ko Akordioak jarduera-programa bat onartu zuen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak eta Osasun sailburuak proposatuta, berariazko osasun-premiak dituen eskola-biztanleriari arreta emateko.

Akordio horren barruan, lantalde teknikoak sortzea aurreikusi da, honako xede hauek kontuan hartuta:

- Irakasleentzako protokoloak prestatzea, eskola-inguruneko osasun-premiei eta medikazioa emateari buruz,
- osasunerako hezkuntza-programak, hezkuntza-mailen arabera,
- irakasleentzako prestakuntza- eta aholkularitza-jarduerak, gaixotasun jakin batzuei eta larrialdiei buruzkoak.

Izandako bileren ondorioz, eta datorren 2006-2007 ikasturteari begira, ikastetxe guztietako zuzendaritzetara eta Osasun Eskualdeko Zuzendaritza bakoitzera bidaliko da dokumentu/jarduteko protokolo hau, gidatzat har dadin eskola-biztanleriaren berariazko osasun-premien kasuan.

Oinarizko premisak


- a) osasun-sistemak bermatu egiten du eskola-biztanleria guztiaren arreta/asistentzia, eta osasun-zentroetan dihardu, arauz; salbuespenetan baino ez da aritzen esparru horretatik kanpo, osasun-urgentziako arrazoiak direla eta;
- b) hezkuntza-sistemak eta bertan lanean dihardutenek ez dute ikasleen osasun-laguntza zeregin, bizia arriskua dagoenetan ez bada.

Ezinezkoa denez ikastetxe bakoitzean osasun publikoaren ordezkaritza izatea, protokoloak proposatu behar dira, hezkuntza-osasuneko errutina ahalbidetzearren, urgentziatzko kasuetarako:

- irakasleen/begiraleen borondatezko laguntzarekin, osasun-egoera berezian dagoen ikasle bakoitzaren aitak, amak edo tutoreak bere aginpide edo autoritatea ordezkotzan eman eta gero, espresuki eta idatziz eman ere,
- salbuespenezko neurriak hartuz, kasu bakoitzaren balorazio zehatza egin ondoren; adibidez, dagokion haurrari ikastetxetik gertuen dagoen osasun-zentroa izendatzea, eskola-orduetan osasun-arreta jaso dezan.

Jarduteko protokoloa

- Haurrak arazo sanitarioren bat duela jakinda, aitak/amak/tutoreak ikastetxearen ardura duen Zuzendaritzari jakinaraziko dio, dagokion osasun-ziurtagiria aurkeztuz. Ziurtagiriak honako hauek jasoko ditu: osasun-arazoa eta eskola-orduetan eman behar zaion arreta, beren-beregi adieraziz arretaren modalitateak: jarduerak, eta medikaziorik behar izanez gero, dosiak.
- Ikastetxeko Zuzendaritzak ikastetxe horretako langile “prestatuei” emango die arazoaren berri, eta langile horiek bere esku izango dute haurrarekiko esku-hartzean laguntzea ala ez, haurrari arreta ematen dion osasun-profesionalak adierazitako jarraibideen arabera. Horretarako, haurraren aitak/amak/tutoreak idatzizko baimena emango dio bere burua laguntzeko eskaintzen duenari, eta beren-beregi jaregin edo askatuko du edozein erantzukizunetik, zeregin hori betetzeari dagokionez.
- Ikastetxeko Zuzendaritzak ezin badio egoerari irtenbiderik eman bere baliabideekin, ikastetxeari dagokion Osasun Eskualdeko zuzendariarengana joko du, eta horrek erabakiko du neurri operatibo egoki/beharrezkoa, kasu horretan osasun-laguntza emate aldera.



Irakasleen prestakuntza

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak prestakuntza-ikastaroak — behar bezala kreditatuak— eskainiko dizkie borondatez parte hartu nahi duten irakasleei. Osasun Sailaren edo Osakidetza/EOZen mendeko osasun-langileek emango dituzte ikastarook.




- Gaiak: diabetesa, janari-alergiak, bizkortze edo erreanimazioa, eztarriko trabamenduak, asma, epilepsia...
- Ikastaroak hamar ordu iraungo du, bi egunetan banatuta.
- Hiru Lurralde historikoetan egingo da.

Ikastetxeentzako laguntza

Ikastetxeak berak eskatuta, prestakuntza-hitzaldiak/ikastaroak eskainiko dira, Osasun Publikoko Zuzendaritzak izendatutako osasun-profesional baten ardurapean —gai bakoitzarekin zerikusia duten GKEetako langileen laguntzarekin, ahal izanez gero—, irakasle, begirale, guraso-elkarte eta ikasleentzat.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko abuztuaren 30a



Michol González Torres
Asistentzia Sanitariako zuzendaria
Osakidetza/ Eoz



Juan Jose Agirrezabala

Juan Jose Agirrezabala Mantxola
Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria
Hezkuntza, Unibertsitate, eta
Ikerketa Saila



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Margarita Viciola García
Osasun Publikoko zuzendaria
Osasun Saila